2026ZAUN0022

IRUNGO UDALAREN ABOKATU DEFENTSARAKO ESPARRU-AKORDIOAREN KONTRATAZIOA

CONTRATACIÓN DEL ACUERDO MARCO PARA LA DEFENSA LETRADA DEL AYUNTAMIENTO DE IRUN

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	IDAZKARITZA NAGUSIA / SECRETARÍA GENERAL
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2026ZAUN0022

1. XEDEA

Dokumentu honek IRUNGO UDALAREN ABOKATU DEFENTSARAKO ESPARRU-AKORDIOAREN KONTRATAZIOAk bete beharko dituen baldintza teknikoak finkatzen ditu, edozein jurisdikzio-ordenatan, batez ere administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, zenbait adjudikaziodunekin egindako esparru-akordio baten esparruan.

Kontratu honetatik kanpo geratzen dira konplexutasun bereziko prozedurak, bai gaiagatik, bai zenbatekoagatik, eta bereiz kontratatu ahal izango dira.

Esparru-akordioaren xede diren zerbitzuak, besteak beste, eremu hauetan eman ahal izango dira:

- Administrazioarekiko auzien ordena (gehienbat)
- Ordena zibila eta merkataritzakoa
- Ordena soziala
- Zigor-agindua, soilik agintariei, enplegatu publikoei edo udalaren interes instituzionalen defentsari dagokienez.
- Arbitraje- eta bitartekaritza-prozedurak, oinarritutako kontratuan berariaz aurreikusten denean.
- Prozedura judizialei zuzenean lotutako judizioz kanpoko jarduketak

Eremu bakoitzeko benetako prestazioa oinarritutako kontratuetan zehaztuko da, eta ez dago horiek guztiak aldi berean estaltzeko betebeharrik.

1. OBJETO

El presente documento, fija las condiciones técnicas a las que habrá de ajustarse EL ACUERDO MARCO PARA LA DEFENSA LETRADA DEL AYUNTAMIENTO DE IRUN, en cualquiera de los órdenes jurisdiccionales fundamentalmente en el orden jurisdiccional contencioso-administrativo, en el marco de un acuerdo marco con varios adjudicatarios.

Quedan excluidos del presente contrato los procedimientos de especial complejidad bien por la materia o bien por cuantía que podrán ser objeto de contratación independiente.

Los servicios objeto del acuerdo marco podrán prestarse, entre otros, en los siguientes ámbitos:

- Orden contencioso-administrativo (mayormente)
- Orden civil y mercantil
- Orden social
- Orden penal, exclusivamente en relación con autoridades, empleados públicos o la defensa de intereses institucionales del ayuntamiento.
- Procedimientos arbitrales y de mediación, cuando se prevea expresamente en el contrato basado.
- Actuaciones extrajudiciales directamente vinculadas a procedimientos judiciales

La prestación efectiva en cada ámbito se concretará en los contratos basados, sin que exista obligación de cobertura simultánea de todos ellos.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: SVSL-XPX8-7QOU-VTTE
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Ana Belén Aristizabal Leceta SECRETARIA ACCIDENTAL (14/04/2026 12:31 CEST)

2. PRESTAZIOAK

a) Defentsa juridikoa eta letradu-zuzendaritza, eta jurisdikzio-defentsaren beraren aurretiazko eta/edo nahitaezko jarduketa guztiak, aplikatzekoak diren prozedura-arauek hala eskatzen dutenean.

b) Udalak eskatzen dizkion prozesu espezifikoekin lotutako gaiei buruzko aholkularitza juridikoa ematea.

c) Idazki prozesalak idatzi eta aurkeztea.

d) Ikustaldi, agerraldi, epaiketa eta egintza prozesaletara joatea.

e) Errekurtsoak jartzea, aurka egitea eta haien jarraipena egitea instantzia guztietan.

f) Ebazpen judizialak betearaztea.

g) Negoziazio- edo transakzio-jarduketak, bidezkoa denean eta baimentzen denean.

Egin beharreko jarduketa zehatzak oinarritutako kontratu bakoitzean zehaztuko dira.

2. PRESTACIONES GENERALES

a) Defensa jurídica y dirección letrada y todas aquellas actuaciones previas y/o preceptivas a la propia defensa jurisdiccional, cuando así lo exijan las normas procedimentales de aplicación.

b) Asesoramiento jurídico sobre las cuestiones relacionadas con los procesos específicos que se le solicite por el Ayuntamiento.

c) Redacción y presentación de escritos procesales.

d) Asistencia a vistas, comparecencias, juicios y actos procesales.

e) Interposición, oposición y seguimiento de recursos en todas las instancias.

f) Ejecución de resoluciones judiciales.

g) Actuaciones de negociación o transacción, cuando proceda y sea autorizado.

Las actuaciones concretas a realizar se determinarán en cada **contrato basado**.

3. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

a) Kontratistak beti izango du administrazioarekin harremanetan jartzeko aukera, hark eskatuta, eta aurrez aurre, ahoz edo idatziz, aholkularitza emango dio esleitutako prozedurekin zerikusia duten gai juridiko guztiei buruz. Ildo horretan, udal-bulegoetara joateko prestasuna egongo da, eta joan-etorrien gastuak esleipendunak ordainduko ditu.

b) Kontratistak posta elektronikoz bidali beharko dizkio izendatzen den udal-teknikariari prozeduran epea duten idazki guztiak, adostasuna behar bezala eskatzeko, amaiera-data baino behar besteko aurrerapenarekin, gutxienez.

c) Kontratistak hilabete bakoitzeko lehen lanegunean bidali beharko dio udal-teknikariari prozeduraren egoera, egindako jarduketak eta egiteke daudenak identifikatzen dituen jarraipen-

3. OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA

a) El contratista mantendrá la disponibilidad permanente de contacto con la Administración a instancia de ésta, y la asesorará presencialmente, de manera oral o por escrito, en cuantas cuestiones jurídicas estén relacionadas con los procedimientos adjudicados. En este sentido existirá disponibilidad para el desplazamiento a dependencias municipales por razón de los mismos, siendo los gastos de desplazamiento por cuenta de adjudicatario.

b) El contratista deberá remitir por correo electrónico a el/la técnico municipal que se designe, todos los escritos sujetos a plazo en el procedimiento, para recabar su debida conformidad, con una antelación mínima suficiente a la fecha de término.

c) El contratista deberá remitir a el/la técnico municipal, el primer día laborable de cada mes, informe de seguimiento identificativo del estado del procedimiento, de las actuaciones realizadas y

txostena.

de las pendientes.

d) Kontratistak erakunde propioa eta autonomia izango ditu zerbitzuak emateko, hala bitarteko materialei nola pertsonalei dagokienez. Ez du menpekotasuneko harremanik izango Udalarekin, eta ezingo du, beraz, Udalaren bitarteko material edo pertsonalik baliatu prestazioa emateko.

d) El contratista ha de disponer de una organización propia y autonomía para la prestación de los servicios, tanto en medios materiales como humanos sin que exista relación de dependencia alguna con el Ayuntamiento, no pudiendo por tanto utilizar medio material o personal alguno del Ayuntamiento para la realización de la prestación.

Esleipendunak kontratuaren iraunaldi osoan mantenduko ditu bere gaitasun tekniko edo profesionalaren oinarri izan den profesionala edo profesionalen lantaldea. Kausa justifikatuak direla medio langileren bat ordezkatu behar badu, Udalari jakinaraziko dio hori, ordezkapenaren arrazoiak adierazita eta hautagai bat proposatuta. Hautagaiak ordezkatzen duen pertsonari eskatutako betekizun guztiak izango ditu, eta hori egiaztatzeko dokumentuak bidaliko dira, Administrazioak egiazta ditzan.

El adjudicatario mantendrá en todo momento durante el plazo de ejecución del contrato, al profesional o equipo de profesionales en los que ha basado sus condiciones de solvencia técnica o profesional. Si debido a causas justificadas, necesita efectuar alguna sustitución, lo comunicará al Ayuntamiento, con indicación de los motivos de la sustitución, y la propuesta de una persona candidata que reúna los requisitos exigidos a la que sustituye, acompañando los documentos que lo acrediten, que serán comprobados por la Administración.

e) Zerbitzu guztiak ematean abokatu-lanaren arau deontologikoak errespetatuko dira, bai eta abokatuen estatutu orokorra ere, eta Espainiako Abokatuen Elkargo Nagusiak eta dagokion Abokatuen Elkargoak emandako arau guztiak. Abokatu bulego aditu batean espero izateko moduko ardura profesionalarekin jardungo du, Irungo Udalak dena delako udal-interesak hobeto definitu eta defendatzeko ematen diezazkiokeen jarraibideen kalterik gabe.

e) Todos los servicios a prestar se realizarán siempre respetando las normas de deontología en el ejercicio de la abogacía, así como el Estatuto General de la Abogacía y toda la normativa emanada tanto del Consejo General de la Abogacía Española como del Colegio de Abogados correspondiente, y con la debida diligencia profesional de un despacho de abogados experto, sin perjuicio de seguir las directrices que le pueda cursar el Ayuntamiento de Irun para la mejor definición y defensa de los intereses municipales en cuestión.

*Lex artis*aren arabera eman beharko ditu kontratuaren xede diren zerbitzuak, diligentzia profesionalarekin, kontratuko betebehar guztiak beteta. Horretarako, trebetasunez baliatuko ditu ogibidea dela eta prozedurei, instantziei eta izapideei buruz dituen ezagutzak, eta Udalari gehien komeni zaion bitarteko prozesala hautatuko du.

Deberá prestar los servicios objeto del contrato conforme a la "*lex artis*", cumpliendo con un nivel de diligencia profesional, dando perfecto cumplimiento de sus obligaciones contractuales, utilizando con pericia aquellos conocimientos sobre procedimientos, instancias y trámites que, por razón de la profesión, debe poseer, y eligiendo el mejor medio procesal en defensa del Ayuntamiento.

f) Esleitutako prozeduretako defentsa juridikoaz arduratzen den profesionalak dena delako prozedurarekin zuzenean edo zeharka lotutako dokumentu guztiak kontsultatzeko aukera izango du. Udalari dokumentuen kopiak eskatu ahalko dizkio, baldin eta udal-interesen aldeko epaiketan argudiatzeko edo aurkezteko behar baditu, eta

f) El profesional que desempeñe la defensa jurídica de los procedimientos adjudicados tendrá acceso a toda la documentación relacionada directa o indirectamente con el procedimiento en cuestión, y podrá solicitar del Ayuntamiento copia de los documentos pertinentes para su argumentación y presentación en juicio en defensa de los intereses

eman egingo zaizkio, espedientea izapidetu duen udal-arloaren arduradunak kopiak egin direla idatziz jaso eta beste izapiderik gabe. Edonola ere, informazioa epeak eta gainerako inguruabarrak betetzeko behar adinako presarekin emango zaio, udal-interesak ahal bezain ondo defendatzeko.

municipales, la cual se les facilitará sin más trámite que dejar constancia de su expedición por el Responsable de la dependencia que haya tramitado el expediente y, en todo caso se aportará dicha información con la premura que exija la preclusión de los plazos y restantes circunstancias, para la mejor defensa de los intereses municipales.

Jokoan dauden udal-interesak eraginkortasunez defendatzeko, esleitutako prozeduretan Udaleko agintarien, funtzionarioen eta gainerako langileen laguntza izango du, bere esku utzitako interesen defentsa egoki egiteko. Horretarako, eta aurkako lege-manurik ez dagoen bitartean, bulego publikoetan jasotako datu eta dokumentu oro izango ditu esleipendunak bere eskura, Udalaren bulegoetan.

Para una mayor eficacia de la defensa de los intereses municipales en juego, las autoridades, funcionarios y resto de empleados públicos del Ayuntamiento prestarán a la letrada o letrado asignado para cada caso la colaboración y auxilio necesario para la debida y adecuada defensa de los intereses que representa. Para este fin, y salvo precepto legal en contrario, pondrá a disposición del adjudicatario en las dependencias municipales, cuantos datos o documentos obren en las oficinas públicas.

g) Abokatuek prozesuan ezagutzen dituen datu pertsonalak datu horiek jasotzen dituzten dokumentuek ondorioak izango dituen prozesuan baino ezingo dituzte erabili. Kontratistaren ardura izango da datu horiek erabiltzean datuen babesari buruzko legedian xedatutako mugak eta bermeak betetzea.

g) Los datos de carácter personal a que tenga acceso la asistencia letrada deberán ser utilizados exclusivamente en el proceso en que haya de surtir efectos la documentación a que estén incorporados, haciéndose responsable el contratista de su utilización con los límites y garantías previstos en la Legislación vigente de Protección de Datos.

h) Kontratistak egiten zaizkion kontsultei erantzungo die eta eskatzen zaizkion txostenak idatziko ditu, betiere esleitutako prozedura judizialarekin lotura badute. Besteak beste, defentsa judizialari lotutako aholkularitza juridikoa emango du aurretiaz, txostenak idatziko ditu demandan atzera egiten bada, demandari amore ematen bazaio edo transakzio judiziala egiten bada edo beste edozein inguruabar geratzen bada prozesuan, baita ebazpen judizialen inguruan eta horien kontrako errekurtsoa aurkezteko komenentziaren inguruan. Horrez gain aholkularitza juridikoa emango du administrazio-zerbitzuek horiek betearazteko moduari buruz.

h) El contratista deberá atender a las consultas y/o informes que le sean requeridos y se encuentren directamente relacionados con el procedimiento judicial asignado. Entre otros, prestará asesoramiento jurídico previo vinculado a la defensa judicial, la emisión de informes en los supuestos de desistimiento, allanamiento o transacción judicial o cualquier otro incidente procesal, y sobre el contenido de las resoluciones judiciales y la conveniencia o no de interponer recurso contra las mismas, así como el asesoramiento necesario para su ejecución por parte de los correspondientes servicios administrativos.

i) Udalari informazio helaraziko dio aldian-aldian prozeduraren egoerari buruz, egiten diren jarduketa guztien kopia helarazita, posible bada. Kontratistak ebazpen judizialaren berri emango dio kontratuaren ardura duen funtzionarioari, eta Udalari idatziz jakinaraziko dio, errekurtsoa aurkeztea komeni den edo ez adierazita. Ildo horretan, esleipendunak bere esku utzitako kontuaren bideragarritasunaren berri eman behar dio Udalari, gatazkak sustatzeko edo funtsik gabeko bide judizialetara jotzeko asmoak

i) Deberá mantener informado al Ayuntamiento del desarrollo del procedimiento, facilitándole si fuese posible, copia de todas las actuaciones que se produzcan en relación con el mismo. De la resolución judicial se dará conocimiento por el contratista al personal funcionario responsable del contrato, además de ponerla en conocimiento del Ayuntamiento por escrito, acompañando nota explicativa sobre si es conveniente o no interponer el recurso pertinente, en su caso. En este sentido el

bazterrarazten saiatuko da eta, kasuan-kasuan, Udalaren interesak lortzeko aukera hobeak gomendatuko dizkio.

adjudicatario tiene obligación de informar al Ayuntamiento sobre la viabilidad del asunto que se le confía, procurará disuadirle de promover conflictos o ejercitar acciones judiciales sin fundamento y le aconsejará, en su caso, sobre vías alternativas para la mejor satisfacción de sus intereses.

j) Kontratuaren ezaugarriak direla eta, ezin da zati bat azpikontratatu ez laga ez oinarritutako kontratuena ezta.

j) No se permite la subcontratación parcial ni la cesión del contrato ni de los contratos basados.

k) Kontratistak bere gain hartuko du egiten dituen lanen kalitate teknikoaren ardura, bai eta bere omisio, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrek administrazioari edo hirugarrenei eragindako kalteen ardura ere, horren ondoriozko kalte-ordain guztiak ordainduta.

k) El contratista deberá responsabilizarse de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle, así como de las consecuencias que se deduzcan para la Administración o para terceros de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato, indemnizando todos los daños de cualquier naturaleza que de ello se derive.

l) Kontratistak kontratatutako jardueran aritzeko nahitaezko aseguruak izan beharko ditu, bai eta kontratuaren ondoriozko erantzukizuna estaltzen duen aseguru bat ere, gutxienez 300.000€koa.

l) El contratista deberá contar con los seguros que le sean obligatorios para el ejercicio de la actividad contratada, así como un seguro que cubra las responsabilidades derivadas de la ejecución del contrato por importe mínimo de 300.000€.

m) Udalari faktura bidali beharko dio, AKBP.

m) Obligación de emitir factura al Ayuntamiento en los términos establecidos en el PCAP.

4. LANTALDEA

Esparru-akordioaren enpresa adjudikaziodunek kaudimen teknikoa justifikatu beharko dute, gutxienez jardunean dagoen letradu bat izendatuta (elkargoaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da), Udalaren abokatu-zuzendaritzarako eta defentsarako.

Gutxieneko esperientzia hau izan beharko du esleipendunak izendatutako pertsonak:

a) 5 urteko esperientzia jarduneko abokatu gisa.
b) 5 urteko esperientzia gutxienez administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenako gaietan, udalen defentsan. Gutxienez 5 kasuren defentsa justifikatu beharko da.

Esparru akordioetan oinarritutako kontratuetan, defentsak gutxieneko eskakizun horiek bete

4. EQUIPO DE TRABAJO

Las empresas adjudicatarias del acuerdo marco deberán justificar su solvencia técnica, como mínimo designando a un Letrado en ejercicio (que se acreditará mediante certificación colegial) para la dirección letrada y defensa del Ayuntamiento.

La persona designada por la adjudicataria deberá acreditar la siguiente experiencia mínima:

a) Experiencia como abogado o abogada en ejercicio, 5 años.
b) Experiencia llevando asuntos en el orden jurisdiccional contencioso administrativo, en defensa de Ayuntamientos como mínimo, 5 años. Se deberá justificar al menos la defensa de 5 casos.

En los contratos basados en este acuerdo marco la defensa deberá cumplir estas exigencias mínimas.

beharko ditu.

5. BATERAEZINTASUNA. INTERES GATAZKA

Zerbitzu juridikoak aplikatu beharreko arau guztien arabera emango dira eta, batik bat, arau deontologikoak kontuan hartuta, baita abokatu-lanetan aritzeko gainerako arau guztiak ere. Interes-gatazka edo bestelako inguruabar batzuk badaude eta abokatu-lanetan aritzeko araudiak esleipenduna zerbitzuak emateko ezinduko balu, elkargoaren araudian xedatutakoaren arabera jokatuko da.

Esleipendunak ez du bere gain hartuko Irungo Udalaren kontrako interes partikularren defentsa, ez esleitutako kontratuaren indarraldian ez hura amaitu eta hurrengo bi urteetan, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan. Betebehar hori izango dute, halaber, kontratistaren bulego profesionaleko abokatu guztiek, epe berberean.

Horretarako, esleipendunak zinpeko adierazpen bat aurkeztuko du, honako hauek adierazita: kontratuaren indarraldian ez dela interes-gatazketan egongo ez bera ez bulego berean dabiltzan gainerako abokatuak, eta epe horretan ez dutela bere gain hartuko hirugarrenen ordezkaritza edo defentsa, dela epaiketetan, dela epaiketaz kanpo, Udalaren aurrean.

6. OINARRITUTAKO KONTRATUAK

Esparru-akordioan 4 enpresa hautatuko dira.

Gehieneko adjudikaziodunak hautatu ondoren, lehia berriro irekiz adjudikatuko dira oinarritutako kontratuak, administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusitakoaren arabera.

5. INCOMPATIBILIDAD. CONFLICTO DE INTERESES

Los servicios jurídicos se prestarán con cumplimiento de toda la normativa que sea de aplicación, y en particular, de la deontológica, y demás establecidas para el ejercicio profesional de la Abogacía. En el supuesto de que, por colisión de intereses u otras circunstancias, la normativa de ejercicio profesional de la Abogacía impidiera a la adjudicataria la prestación de servicios, se deberá atender a lo dispuesto en la propia normativa colegial.

Tampoco asumirá la defensa de intereses particulares en contra del Ayuntamiento de Irun durante la vigencia del contrato adjudicado y durante los dos años posteriores a su finalización, en la jurisdicción contencioso-administrativa. Dicha obligación se extiende a todos los abogados pertenecientes al despacho profesional del contratista y durante igual tiempo.

A tal efecto el adjudicatario estará obligado a presentar una declaración jurada de no incurrir, durante la vigencia del contrato, en situaciones de conflicto de intereses ni personalmente, ni en su caso, a través de los restantes abogados agrupados en el despacho colectivo del que sean miembros, no pudiendo durante ese tiempo, representar o defender los intereses de terceros, tanto judicial como extrajudicialmente, frente al Ayuntamiento.

6. CONTRATOS BASADOS

En el acuerdo marco se seleccionarán 4 empresas.

Una vez realizada la selección del máximo de adjudicatarios, los contratos basados se adjudicarán mediante reapertura de la competencia, conforme a lo previsto en el PCAP.